

SmartEnCity - Plan de Coronación - Rehabilitación energética

ZEIN DA HELBURUA?

Etxebizitzaren birgaitze energetikoa aukera paregabea da Koroatzearen auzoko herritarren **bizikaltatea hobetzeko**.

Koroatzearen auzoko etxebizitzak birgaituz lortu nahi da, horien **eskaera energetikoa % 50 inguru murriztea**, eta, horrela, **CO2 isurtzeak nabarmen murriztea**.

Gaur egun, etxebizitza gehienek **ez dute isolamendurik** fatxadetan, ezta estalkietan ere. Hortaz, elementu horien birgaitze energetikoaren bidez, nabarmen hobetuko dira bai etxebizitzaren **baldintza termikoak** bai **barruko konforta**.

ZERTAN DATZA?

Birgaitze energetikoaren bidez, **eraikinari berokia jarriko zaio**, eta energia efiziente eta berriztagarri batez hornituko da.


Horretarako, **estalkia** eta **fatxada** isolatu egingo dira. Fatxadarako, **kanpoko isolamendu termikoaren** sistema dago aurreikusita.

Gainera, **leiho bikoitzak** ipiniko dira.



Bestalde, eraikinaren barrualdea ere egokitu egingo da, **beroa banatzeko sarera konektatzeko**.

Eremuko bizitegi-eraikinen (1.313 etxebizitzaren) diagnostikoa egin ostean, sei motatakoak aurkitu dira, alderdi energetikoari erreparatuta. Aurrena, mota bakoitzeko eraikin lagin bat birgaitzeko diseinu-proiektuak egin dira, energia-eskaera murrizteko SmartEnCity proiektuan jasota dauden konpromisoak jarraiki. Birgaitzeetan erabil daitezkeen isolamendu-irtenbideen eta akaberen adibide dira sei mota horiek. Kasu bakoitzerako irtenbide zehatzak proiektu bakoitzaren garapenean zehaztuko dira, jabeakideen erkidegoarekin batera.

- [1. mota](#)
- [2. mota](#)
- [3. mota](#)
- [4. mota](#)
- [5. mota](#)
- [6. mota](#)




ZER ONURA DITU?

 Edificios rehabilitados más confortables	 Menor factura energética	 Reducción del 50% en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI) .
 Viviendas más cálidas en invierno.	 Evitar humedades por condensación e infiltraciones de aire no deseadas.	 Adecuación a la normativa vigente .
 Viviendas más frescas en verano.	 Mejora del aislamiento acústico	
 Aislamiento y confort comparable a una vivienda nueva	 Incremento del valor patrimonial	

NOLA EGINO DA?

Atari bakoitzeko erkidegoak kontratua sinatuko du; kostuak eta ordaintzeko baldintzak jasoko dira bertan. **Visesa izango da birgaitzeko esku-hartzeen kudeatzaile sustatzailea**, eta berak kontratatuko ditu obrak gauzatzeko proiektuak, Euskadiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera. Gainera, obrak egoki (diru-laguntza jaso ahal izateko baldintzak betez) egiten direla bermatuko du. Sozietate publiko hori izango da **auzotarren solaskidea**.




Proiektua erkidegoen partaidetzarekin egingo da, aintzat hartuz, betiere, proiektuaren eskakizunak (gutxieneko isolamendu-errekerimenduak betetzea eta auzoko berokuntza-sistemara lotzea) eta bai proiektuaren bai erkidegoaren aurrekontua.

Atari guztietan egin beharko dira lanak, berokuntzarako ur beroa eta etxeko ur beroa etxebizitza guztietara eramango duten hodiak ezartzeko. Hainbat egoera gerta litezke:

1. Berokuntza-sistema zentrala duten erkidegoen kasuan, aukera egongo da beroa banatzeko sare berria gaur egun eraikinean dagoen berokuntzako eta ur beroko sarera lotzeko, egungo galdararen ordez trukagailu bat jarritz.
2. Gas naturaleko bananako berokuntza-sistema duten erkidegoen kasuan, egungo galdaren ordez trukagailu bat ipiniko da, eta espazio bera hartuko du.
3. Berokuntza-sistematik ez duten edo berokuntza elektrikoa darabilten etxebizitzetan erradiadoreak ipini beharko dira, bero-sarearekin bat egin ahal izateko.

ZENBAT KOSTATUKO DA?

Coste medio de la rehabilitación energética 21.000 €



Proiektuaren batez besteko kostua

Birgaitze energetikoaren batez besteko kostua 21.000 €-koa izango da etxebizitza *eredu* bakoitzeko. Zenbateko horretatik, administrazioek 11.400 € emango dituzte, batez beste, diru-laguntza moduan, hau da, kostu osoaren % 54. Hortaz, jabe bakoitzak batez beste 9.600 € jarri beharko ditu, birgaitze energetikoa gauzatzeko. Batez besteko BEZik gabeko kostu hori estimazio bat da, eta erkidego bakoitzaren benetako kostua bertan egiten diren esku-hartzeen arabera zehaztuko da.

Berme-funtsa

Gainera, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak berme-funts bat osatuko dute Visasaren bitartez, proiektuan parte hartu nahi duten eta behar adina ez duten pertsonentzat.

ETA BESTE HOBEKUNTZARIK EGIN NAHI IZANEZ GERO?

Energia-eraginkortasunari lotutako lanetarako laguntzak soilik jasoko ditu proiektuak, alegia auzoko berokuntza-sistemara konektatzeko eta eraikuntzen isolamendua hobetzeko. Erkidegoak bestelako hobekuntza-lanik egin nahi badu (egiturazkoak, estetikoak, igogailuak eta abar), **administrazioek** (Udalak, Eusko Jaurlaritzak) **ematen dituzten diru-laguntzak eskatu** ahal izango ditu.

NOLA DOA PROIEKTUA?

2016ko urrian, bilerak egiten hasi ginen jabekideen erkidegoekin, proiektuaren xehetasunak auzotarrei ezagutarazteko asmoarekin. Erkidego bakoitzean, haren premia bereziak aztertu dira, eta bertako auzotarren kezka eta beharrak jaso. Dagoeneko (2017ko maiatzerako), komunitateen % 75ekin jarri gara harremanetan, eta proiektuaren eremua osatzen duten 108etatik 72rekin bildu gara. Zenbait kasutan, hainbat bilera egin ditugu erkidego bakoitzarekin: lehenengoa lehendakariarekin eta hurrengoak bizilagun gehienekin. Erkidego batzuetan interes handiagoa aurkitu dugu, eta dagoeneko badira 2 proiektuari atxikita.

Birgaitzeko proiektuari ekiteko, esparru-akordio bat sortu dugu zuzendaritza fakultatiboarekin (arkitekto eta aparejadoreekin), eta 55 talde ditugu, jada, erkidegoak proiektuari atxiki ahala eskaintzak aurkezteko prest. Egiatzatutako eskarmentua dute birgaitze energetikoetan, eta, lanon segimenduak eskatzen duen inplikazioa tarteko, tokiko taldeak dira, auzoaren idiosinkrasia eta beharrak ondo baino hobeto ezagutzen dituztenak. Helburuak betetzearren proiektuak dituen ezaugarri teknikoak direla eta, berariazko prestakuntza eskaini zaie arkitekto eta aparejadore horiei. Aurreko astean, proiektuaren errekerimendu teknikoak azaldu zitzaizkien, egun osoko bi saiotan, bai eta eraikinen birgaitze energetikoan jardunbide egokiko irtenbideak ere.